

2023/0000521 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

Goiz Eguzki Erretiratuen Elkarte irabazi asmorik gabekoa elkartea da, eta jubilatua defendatzea du helburu. Horretarako, hainbat kultur, atseden eta gizarte-jarduerak antolatzen ditu. Antolatzen dituen jarduerak interes sozialekoak dira.

Jarduerak egin ahal izateko Goiz Eguzki Erretiratuen Elkartea Udalaren dirulaguntza behar du.

Hernaniko Udalaren 2023-2025 Dirulaguntzaren Plan Estrategikoaren 1. lerro estrategikoarekin bat egiten du: Gizarte ekintza.

Hernaniko Erretiratuen Elkarte bakarra da, eta, beraz, Udalak zuzeneko dirulaguntza eman ahal izango du, deialdi publikorik gabe.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

1. Goiz eguzki elkarterekin dirulaguntza emateko hitzarmena sinatzea.
2. Hernaniko Goiz Eguzki elkarteari 15.000euro ordaintzea dirulaguntzaren moduan, pertsona helduentzat osasun eta ongizate jarduerak burutzeko, eta gastua onartzea 2023an indarrean dagoen Hernaniko udalaren aurrekontu partida honen bidez:

02.481.02.231.05 2023 DIRULAGUNTZA GOIZ EGUZKI ELKARTEA  
AD: 360-2023

Hitzarmena indarrean egongo da 2023 urtarrilaren 1etik (atzeraraginez) 2026 abenduaren 31era, gehienez ere 4 urte (2023, 2024, 2025 eta 2026) 4 urte horiek igaro ondoren, hurrengo 4 urteetan urtez urte berrituko da bi aldeak ados egonez gero.

3. Dirulaguntza bi zatitan ordaintzea::

Dirulaguntzaren %60 (9.000 euro) aurrerapen gisa ordainduko da, hitzarmenaren onarpenarekin batera.

Dirulaguntzaren %40 (6.000 euro) diruz lagundutako gastuen justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Alkatearen edo eskuordetza duen pertsonaren ebazpen bidez.

Hurrengo urteetan (2024 - 2025 - 2026), urte horretan egin beharreko jardueren memoria aurkezten denean egingo da lehen ordainketa.

Horretarako, beharrezkoa izango da aurreko dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztea.

Diruz lagundutako gastuen justifikazioa aurkezteko epea dirulaguntza eman eta hurrengo urteko urtarrilaren 31n bukatuko da.

4. Erabaki honen berria interesatuei jakinaraztea.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea . Sinatua: udal idazkaria

udal idazkaria  
2023/03/03,

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 56 – e-mail: [hgz@hernani.eus](mailto:hgz@hernani.eus)



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU77c85e02-0125-4043-82a5-ba75039ebd07**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUb88ea6da-3bea-45a1-a9f9-8b869863245b**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**